

"Oktaedroa"
Julio Cortazar
euskaratzailea: Gerardo Markuleta
Ibalzabal, 1992

Erreseina edo lagun arteko kritikaxo hau idazten ari zaizuen oso da Julio Cortázarzalea, kronopio izan zeneko garaietatik honaino segitzen dugu maisu izan diren idazleen panteoian egunero haren omenez pentsamenduzko larrosa bat edo bi, usaintsuak ordea, jartzen.. Gazteago ere baginen, eta idazle argentinarrengan aurkitu genuen munduarekiko ikuspegi betea, ez filosofia, bizitzeko era baizik. Beste garaiak ziren, noski, bestelakotuak, handiagotuak agertzen ginen gero eta ttikiago zen munduan. "La Maga"rekin amets egiten genuen; bizi ginen hirian ez zeunden bulebar eta zumardietan zehar bilatzen genuen haren arrastoa. Idealistago ginen, hori bai. Den-dena irekitzen zitzaigun gure aurrean, erraz hartzeko moduan. Eta nekez ginen asetzen.

Idazten ari zaizuen honek oroitzapen berezia du "Oktaedro" liburuaz. 1974ean edo inguru horretan kaleratu zuen Alianza Editorial izeneko argitaletxeak, eta gurekin eramaten genuen beti, leku guztietara: metroan ibiltzen ginenean, zinemara joaten ginenean, kontzertu batera hurbiltzen ginenean. Gure poltsikoko liburua genuen, eta buruz genekizkien ia ipuin osoak, batez ere "Poltsiko batean aurkitutako eskuizkribua". Hiri handi bateko metroan ibili ez denak ez daki zein zaila den nahi duzun pertsonarekin bertan topo egitea, aldeaz aurretik prestatutako zita batean ez bada; nahiz eta jakin labirinto horretako punturen bat egongo dela, behar bada zurekin topo egin nahian. Infinitoak baitira konbinaketa posible guztiak. Infinitoak sartzeko bideak; infinitoak ateratzekoak. Behin, hala ere, alabeharraren jokoak edo aginduta, aurkitu genuen tren aldaketa batean eta biok norabide berean gindoazela une hartan ikusi nahi genuen emakumea. Kasualitate hori ez zen gehiago gertatuko, baina badakigu ziurrenik ere Cortázaren liburua generamala gabardina zaharkituaren poltsikoan, eta pentsatzen ari ginela lehen aipatutako ipuin horretaz. Eta baliteke bizitza den jolas honetako beste maila bat izatea hura ere. Irakur ezazue ipuin hori eta jakingo duzue zergatik den hain pozgarria lur azpiko metro batean nahi duzun pertsonarekin topo egitea.

Alabeharrak aginduta aurkitu dugu Gerardo Markuletak itzuli duen liburua. Berak ekarri dizkigu burura garai bateko oroitzapenak, lausoturik ez bazeuden ere, nahikoa gorderik barneko ganbaran, traste zahar eta alferrikako askorekin batera. Gu ez baikara ordukoak, baina liburu honek gordetzen du orduko usaina.